



GAZTE- EKIN BIZKAIA EGITEN DBH 4.



<https://gazteak.bizkaia.eus>



ALDAKETARA EGOKITZEA 1-2-3

GAITASUNA

Aldaketara egokitzea.

LOTUTAKO GAITASUNAK

Etengabeko ikaskuntza, ikaskuntza autonomoa, erabaki hartzea/ekimena.

GAITASUNAREN DESKRIBAPENA

Erronka eta arrisku berriek dakartzaten aldaketetara egokitzeko prestasun positibo gisa defini daiteke, helburuak lortzeko jarrerak eta jokabideak aldatzera behartu ditzakeena.

HELBURUAK

- Gizarte-, hezkuntza- eta lan-arloan egiten diren aurrerapenekiko interesa sustatzea.
- Erresilientzia eta malgutasuna sustatzea erronka berrien aurrean.
- Zeregin eta erronka berriak bere gain hartzea.
- Ikasteko eta autoikasteko modu berriak sartzea.
- Aldaketekiko erresistentzia eza erraztea.

KURTSOA




DBH 4.

GAITASUNA ESKURATZEA

Aldaketara egokitzeko gaitasuna lortzeko, funtsean, honako hauek egin behar dira:

- Egoerak ikuspuntu desberdinetatik interpretatzea.
- Informazioabilatzea eta erabiltzeaziurgabetasun-inguruneetan erabakiak hartzeko.
- Aldaketa erresistentziarik gabe onartzea.
- Ingurune aldaketez eta aurrerapen teknologikoez arduratzea.
- Zeregin berriak bere gain hartzea.

Aldaketara egokitzeko gaitasuna eskuratzeak aldaketa etengabe dagoen mundu batera modu positiboan eta konstruktiboan egokitzea ekarriko die ikasleei. Mundu hori askoz gehiago aldatuko da teknologiaren eraginez. Ziurgabetasun-uneetan erabakiak hartzeko aukera emango du, aldaketa aukera bat ikustaraziz gaitasun hori ez dutenek sentitzen dituzten beldur eta segurtasun-ezei aurre egiteko.



ALDAKETARA EGOKITZEA 1-2-3

GAITASUNA LANTZEKO DINAMIKA

1. Bi hilabete etxetik atera gabe

DESKRIBAPENA

Ariketa ikasgela osoarekin egiten da. Proposatzen den jarduera ikasgelan eztabaidatzea da, ikasleek eta gizarteak 2020ko konfinamendura egokitzeko egin behar izan zuten aldaketari buruz eta handik hilabete batzuetara izan zituen ondorioei buruz.

Egokitzapen guztiak idaztea da helburua, haien zailtasun-maila ikusita, eta konfinamendu horrek haien bizitzan izan dituen ondorio positiboak eta negatiboak aztertuz.

2. Bi hilabete mugikorrik eta Internetik gabe

Lehenago azaldutako dinamika hori bera egin daiteke, eztabaidagai gisa jarriz telefono mugikorrik eta Internetik gabe bizi behar izatekotan aldatu eta egokitu beharko liratekeen egoerak.

3. Teknologia eta lanpostuak etorkizunean

Lehen azaldutako dinamika horiek berak egin daitezke berriro ere, enpleguaren eta lanbideen esparruan etorkizunean sortuko diren egoera berriak eztabaidai gisa jarriz, teknologiak eragingo dituen aldaketen ondorioz.

Kasu honetan, dinamika zabaldu egin daiteke ikasleek alde zuzenetik egindako talde lan baten bidez. Lan horren baldintza aurretik ikasgelan landu ez izatea da; trebetasun digitala, informazioaren bilaketa eta autoikaskuntza sustatzeko.

DENBORA-ESTIMAZIOA

Ordu bat.

BEHARREZKO MATERIALA

Bat ere ez.

EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Informazioa bilatzea eta erabiltzea.
- Ziurgabetasunari erantzutea.
- Aldaketekiko onarpena/erresistentzia.
- Egindako ekarpenak.
- Taldearen funtzionamendua.
- Orientatzailearen ikuskapena.
- Ikasleek jarduerari buruz duten iritzia.

